

Herröye

1.-SARRERA

TXERTAKETA 1: SPOT-A

2.- AURKEZPENA (Pertsonaiak)

Danbor hotsak amaitzean AURKEZLEA argizatzen da ikusleriaren erdian.

♪ WILLKOMMEN CABARET ♪

AURKEZLEA: ONGI ETORRI ENTZUN
SANTU, HAUR, GAZTE, HELDU
GURE HERRIYEK ZU BEHAR ZAITU
ZURE ZAIN GAUDE
GOZATU ZAZU
ONGI ETORRI ENTZUN
NIRE HERRIYE, ZURE HERRIYE, GURE HERRRIYE
Zuri, Azpeitiar arduratsu eta konprometitu horri, eskerrik asko
gaur hona etortzeagatik.

Berdin da nondik etorri zinen herrira, non jaio zinen, ze hizkuntza
hitz egiten zenuen. Azpeitiar sentitzen bazara, hau da zure lekua.
Azpeitiarra nahi duen lekuan jaiotzen da!

ONGI ETORRI ENTZUN
NIRE HERRIYE, ZURE HERRIYE, GURE HERRRIYE
Herriak merezi duelako elkartu gara gaur hemen, Azpeitiari zor
diogun hori bihotzez eskaintzeko. Eta zer eskaini behar dio
Azpeitiari Azpeitiar batek? Leialtasuna, konpromisoa, begirunea.

Eta hemen egoteak, badu bere saria! Sari izugarria! Gutako
edonork irabazi nahiko lukeena! Basilikako urrea? Ez! Iturzuloko
etxea? Ez. LAPIKOA

*Iluntasuna eta jarraian argi guztiak pizten dira, lapikoa dakarte dantzariak
eskenatokiaren erdira.*

AURKEZLEA: Hemen, lapiko honen barruan dago saria, sari mundiala! Benetako
azpeitiarrontzat saria. Eta zein da? Lanpostu bikain bat! Baldintza

onenetan, jakina, herriaren alde beti! Oraingoz, ordea, ezin dugu esan zein den lanpostua, misteriotik duen adina baitu xarmagarritik bizitzak eta antzokiak.

Baina herri honetan justuak garenez, zozketak erabakiko du norentzat izango den saria, sari bakarra. Hemen eskatzen den meritu bakarra benetako azpeitiarra izatea da. Eta irabazlea al zaren jakin nahi baduzu, ekitaldi amaierara arte itxaron beharko duzu.

Baina, zer da Azpeitiarra izatea? Galdetuko diozu zure buruari. Ni ba ote naiz Azpeitiarra? (Isiltasuna)

Hemen ditugu gurekin herriaren ispilu diren 5 herritar, gaurko saioa gidatzeko aukeratuak izan direnak. (pausa) 5 herritar hauek lagunduko digute gure Azpeitiar sena eta esentzia berreskuratzen. Azpeitiarrak garela baieztatzen, gure dudak argitzen.

Zu hauetakoren batekin identifikatzen bazara, ez egin zalantzarik: Azpeitiarra zara.

ABESBATZA: ONGI ETORRI ENTZUN
NIRE HERRIYE, ZURE HERRIYE, GURE HERRRIYE

AURKEZLEA: Aurrera gure lehen protagonista. Irene Aranburu!

Txaloak. Irene sartzen da.

AURKEZLEA: 25 urteko herritar eredugarria. Igerileku aurreko etxeetan, Beberli Hills-en, du bizilekua. Zer maite du? Kirola eta kirola! Eta gerrian daraman soka, inoiz kentzen ez duena.

Sokamuturrean parte hartzen duen emakume bakarra dugu Irene!

DENAK: Irene! Irene!

AURKEZLEA: Aitzindaria, aitzindaria inondik inora ere!

14 bizikletaren jabe da eta 83 zapatila pare ditu etxeko garajeon.

Xoxoteko bertikala zer da Irenerentzat? Bertigorik gabeko bertikala! Egunean bi aldiz egiten du begiak itxita!

Herriko kirol elkarte guzti hauetako kide da:

(Jarraian datorren taldetxo hau segidan eta ia arnasarik hartzeko astirik gabe esan) Lagun Onak mendi elkartean, Lagun Onak futbol elkartean, Iraurgi saskibaloian, Ilunpe pilota elkartean, Kriket elkartean, eskalada elkartean, Sinshin-riu karate elkartean, Xeye korrika elkartean, Atracciones Sanz txirrindulari elkartean... eta abarretan!

Eta hori nahikoa ez eta Txirlo jaurtiketan, Duatloian, triatloian, kuartilatoian, Beterratako futbito txapelketan eta euskal pentatloian parte hartzen du! Eta azken aldian Crosfitarekin buru belarri dabil. (*Hasperen egin eta*)
Txalo bat Irenerentzat!

Txaloak.

AURKEZLEA: Aurrera gure bigarren protagonista! Joritz Iriarte!

Txaloak. Joritz sartzen da.

AURKEZLEA: 25 urteko mutil gaztea. Pablo VI.nean bizi izan da ia orain arte, baina Azpeitiak eskaintzen dituen alokairurako diru laguntzei esker, izebaren etxea alokatu du Damasoenean.
Astero, artikulu bat idazten du Uztarrarian.
Herrian egin diren eskolaz kanpoko ekintza guztietan parte hartutakoa da.

*Ikuslegotik **bere amak** parte hartzen du.*

AMA: (*Harro*) Den-denetan! Musika eskola, judoa, futbola, Center pointa, yoga, antzerkia, saskia, pilota, panderoa, Arte y Diseño
Eta denetan ona izan da! (*Jendeari begiratzuz, oso harro*) Nire semea da. Joritz! Joritz!

DENAK: Joritz! Joritz!

AURKEZLEA: Jose Luis Frantzesenaren Xuberten azken dizipulutzat du bere burua. 5 urte pianoaren ondoan solfeoa ikasten egon ostean, klarinetea tokatu zitzaion eta geroztik bandako kidea da.
Musikarekiko duen zaletasunak dantzara ere bultzatu du Joritz, eta Luix Beltzarekin Xanjuandegiko festetan dantza egitetik txapela jantera iritsi zen Seguran. Azkenaldian Orbegozorekin dabil gerriak astintzen Pizzasprint alboko lokalean.
2017ko haurren danborradako karrozaren diseinua egin zuen lkasberri atzeko baratzetako porruetan oinarrituta.
Xapuek xake elkartearekin, Alemaniako xake txapelketan, brontzezko medaila irabazi zuen.
Umetan, Chaplin ondoko bideoklubean alokatzen zituen bideoak ostiralero.
Irudhitzen lehiaketan poesia bat idatzi zion Arenasen argazki bati.
Azpeitiko kultur bekari esker Xaguxatar parkeari jolasteko zentzua topatzen saiatzen dabil.
Txalo bat Joritzentzat!

Txaloak.

AURKEZLEA: Hurrengoa...Joxe Agustin Orbegozo!

Txaloak. Joxe Agustin sartzen da.

AURKEZLEA: Eliz kalekoa, 68 urte.
Herrian langilerik bada, hori Joxe Agustin da! Fina eta esaneko gizona. Denetik egiten daki! Herrian zer? Joxe Agustin han, lanean.

Adibidez, nork jartzen du parroko jaiotza?

DENAK: Joxe Agustinek!

AURKEZLEA: Nork tailatu zuen, San Juan lagun minarekin batera, Periko Motxalaren irudia bere eskuekin?

DENAK: Joxe Agustinek!

AURKEZLEA: Eta nork jasotzen ditu Olentzeroren eta kaldereroen astoaren kaka pastillak?

DENAK: Joxe Agustinek!

AURKEZLEA: Eta nork banatzen dizkie umeei errege kabalgatako antortxak?

DENAK: Joxe Agustinek!

AURKEZLEA: Eta nor arduratzen da San Sebastianetako atabalen horniketaz?

DENAK: Joxe Agustin!

AURKEZLEA: Eta elizako diruaren poltsa pasatzeaz?

DENAK: Joxe Agustin!

AURKEZLEA: Eta mazeru lanak egiteaz? (*Joxe Agustinek seinalatu egingo du*)
Nork? Nik? Ez!

DENAK: Joxe Agustin!

AURKEZLEA: Umetatik dakar herrigintzarako sena. Gaztea zenean ez zuen sekula parroko paretan pilotan jolastu. 2 pezeta gehiago patrikan!

Zurumurruek diotenez 82an Juan Pablo II aitasantua Loiolara etorri zenean elkarrekin txokolatea txurroekin jan omen zuten Kirurin.

Eta gaurko ikuskizun honetarako muntaia guztia? Joxe Agustinek!

Udaleko nominan ez egon arren udalak badaki hor egongo dela lanerako prest, beti.

Egunen batean, hiltzen bazara, lasai. Joxe Agustin arduratuko da zure kaxa eramateaz. Esku onetan gaude!

Txalo zaparrada Joxe Agustinentzat!

Txaloak.

AURKEZLEA: Aurrera...Maria Jesus Murillo!!! Maxux!

Maxux sartzen da.

DENAK: Maxux! Maxux! Maxux!

AURKEZLEA: 45 urte. Xanjuandegin hazi, hezi eta poteatu. Herriaren zaindari leiala duzue bera. Askok maite du udaltzain lana eta ordena du gustuko.

Bere urtebetetze egunean, Beltzarenean bazkaldu ostean, Garoan hartzen du kafea Tuturekin. Lasaneko erregaliz beltza gustatzen zaio eta Petraneko Chesterra, hangoa bakarrik.

Auzotarrek diote zorretan daudela berarekin, bere etxeko leihotik, amona Mantangorri goitik behera botatzen duelako urtero. Izan ere, Maria Jesusek argi dauka: Lana bai baina festa ere bai! Joxe antonio Agirre plazako Miga txapelketa irabazi izan du bost urtez jarraian. Eta ez dago ados Xanjuandegikoek danborra gaizki jotzen dutenaren mitoarekin. Danbor taldeko zuzendari izan nahiko luke berandu baino lehen. Mane, argi ibili!

Gauza txikiek egiten dute zoriontsu. Esaterako, Xanjuandegiko "ranplak" Ikasberri ondora eraman behar dituztela jakiteak.

Badu ohitura bitxi bat: Ilbeherako gauetan, Garizuma garaian, marra horietan aparkatutako ezezagunen autoei isuna jartzen die. Beraz, adi, herritar maiteok!

Txalo bero bat Maxuxentzat!

Txaloak.

AURKEZLEA: Eta gure azken protagonista... Milagros Etxaniz! Lagunentzat, Mila.

Mila sartzen da.

DENAK: Mila! Mila! Mila!

AURKEZLEA: Plaza nagusian bizi den 55 urteko emakume fina. Udaletxeko teknikaria da lanbidez eta udaleko antolakuntza lanetan dabil betidanik.

Ez da Azpeititik ateratzen ezertara. Berak argi eta garbi dauka: herriak bere premia eta behar guztiak asetzen ditu. Jantzita dituen belarritako eder horien zuloak adibidez, Sierbetako moja xaharrak egindakoak dira, noski!

Julian Barrenetxea abesbatzako kide, pasodobleen maitale eta Bar Azpeitianeko giltzurrunak saltsan plateraren jale amorratu... Hainbeste maite du herria, udaleko korporazioa kalera ateratzen denean, herriko banderan bilduta joaten dela.

Gogoratzen duzue kioskoaren inguruan egin zen bozketa? Milari esker egin zuen aurrera, azken baiezkotua berea izan zelako!

Eta "balkoneoa"? Berak ezarri zuen ohitura hori herrian. Herrian ze festa, halaxe apaintzen du bere etxeko balkoia. Atez atekoaren aurkako poltsak zintzilik izan ezik... gure herrian ez!

Amets errepikakor bat du gauero: Beasaindarrei Matxinbentaren zatia kentzea!

Hala ere ez dakizue handiena... Haurdunaldia egun bat luzatu zuen bere semea uztailaren 31an jaio zedin! Nola izena du bere semeak? Iñigo!

Txalo zaparrada Milagrosentzat!

Txaloak.

ABESBATZA: ONGI ETORRI ENTZUN
SANTU, HAUR, GAZTE, HELDU
GURE HERRIYEK ZU BEHAR ZAITU
ZURE ZAIN GAUDE
GOZATU ZAZU

ONGI ETORRI ENTZUN
SANTU, HAUR, GAZTE, HELDU
GURE HERRIYEK ZU BEHAR ZAITU
ZURE ZAIN GAUDE
GOZATU ZAZU

ONGI ETORRI ENTZUN
SANTU, HAUR, GAZTE, HELDU
GURE HERRIYEK ZU BEHAR ZAITU
ZURE ZAIN GAUDE
GOZATU ZAZU

ONGI ETORRI ENTZUN
NIRE HERRIYE, ZURE HERRIYE, GURE HERRIYE

3.-FESTAK

AURKEZLEA: Herria herritarrok eta bertako txokoek osatzen dugu, bai, baina herria herritarron batasuna eta batura ere bada eta hori nola adierazten dugu? Festen eta ospakizunen bitartez. Tradizioak. Ritoak eta mitoak! Eta gureak, asko izateaz gain, anitzak dira. Herrikoiak, parte hartzaileak eta oso aberatsak!

♪ BASE ELEKTRONIKOA ♪

MAXUX: Festak! Zer litzateke gure herria festarik gabe? Eta festetako antolakuntza guztiaz arduratzen den udaltzainik gabe? (*Txistua jo eta bandari keinu egin musika jotzen hasteko*)

♪ SAN SEBASTIAN ♪

MAXUX: Gureak San Sebastian parekideak dira. Amamaren danborra.

BI DANDORJOLE sartu

♪ KALDEREROAK ♪

BI KALDERERO agertu zartagina jotzen.

MAXUX: (txistua) Hau zaratie! Zer da Kaldereroen onena? Hurrengo astien Inauteriak diela!

♪ ARTZAI INUDEAK ♪

ELEGANTE JANTZITAKO bikote bat. Andere bana dakarte eskuetan.

MAXUX: Azpeitia kolorez eta gezurrez betetzen da inauterietan, elegante egunetik hasita. Euriarekin erortzen diren orrazkera garestiak, rimmela masailean behera, zapata deserosoak, gustu oso txarreko konbinazioak... Berdin dio, edozerekin eleganteak gara Azpeitian! Eta gu egun horretan ere elegante! Baina gurea ez da mozorro bat e, argi ibili! Bestela jata....

♪ ERREGEAK ♪

Bandako tronpetak erregeak iragartzen ditu. ERREGEA eta PAJEA sartzen dira karroza txiki batekin karameluak botatzen.

MAXUX: Badatoz! Badatoz! Hemen erregeak Neka-neka eta pinta-pinta eginda iristen dira gure herrira! Aurtengo Baltaxar margotutakoa izango ote da? Banketxeko karamelu gozoak biltzen irribarretsu ibiltzen dira gure txikiak.

♪ STREAPTEASE ♪

ERREGEAK eta **PAJEAK** eskailerak igotzerakoan streaptease egin eta **OLENTZERO** eta **MARIDOMINGI** ager daitezke, denen harridurarako.

MAXUX: Hara! Olentzero! Barkatu, ez naiz zutaz gogoratu. Maridomingi zutaz gutxiago! / Ta maridomingi non dago? Beste behin festa parekideak.

Irenak hartzen du orain ahotsa, erraldoi artetik ageri da

IRENE: Festak maite ditugu, bai, baina festetan ere izerdia latz ateratzen dugu. Txikitan beldurra ematen zidaten eta orain, baita ere! Hauei esker naiz korrikalaria!

♪ DULTZAINA ♪

IRENE: Herriko festaren parte izateak izerdia esan nahi du, Azpeitiaren alde isurtzen dugun izerdia! (Twerking ttuntturro)

♪ TXILIBITUA ♪

IRENE: Herriaren alaitasuna, herriaren bihotza: txilibitua. Esna dadila Azpeitia!

JORITZ + 2 UME sartzen da txilibitua jotzen

JORITZ: Eta igandero-igandero hutsik egin gabe goiz eresian aritzen direnak? Zer litzateke Azpeitia hauek gabe? Bezperan parranda egin duenarentzat gozagarri handiagorik ba ote?

♪ TXISTULARI DOINUA ♪

JORITZ: Baina zer da festa jan-edanik gabe? Azpeitian ezer ez!

TXOSNA. (JENDEA PARRANDAN)

♪ MAREA ARROXA ♪

Bitartean Joritz hitz egiten.

JORITZ: Marea Arroxa herria hartzen zueneko oroitzapen ahaztezinak ditut. Paella janda, pixka bat edanda... egin genuen eztanda!

♪ SAN INAZIO MARTXA ♪

PROSEZIOA (3 UME + JOXE AGUSTIN).

JOXE AGUSTIN: Dena ez da zalaparta eta buila. Hemen bakea behar dugu, e! Herri bakezalea ere bada gurea.

JOXE AGUSTIN: San Inaziok eta San Sebastianek burua jasoko balute harro egongo lirateke. Herritar ASKO prozesioan. Handia da gero gure Azpeitia!

♪ TXINTXARRI ZARATA ♪

JOXE AGUSTIN: Eta zezen plazarako bidea egiten duen zaldia? (*Pausa. Bandak txintxarri hotsa*) Ez zenuten pentsatuko zaldia sartuko genuenik, ez?

♪ ALKATE DOINUA ♪

KORPORAZIOA. Mila banderan bilduta+ umea obispoz + umea alkate txiki + umea bandera + Aurkezlea mazolari.

JOXE AGUSTIN: Agintariak, gure herriaren zaintzaile finenak, hain dotore herrian zehar... Hori, hori bai dela Urguilua! Ohorea! Modaz pasatzen ez diren eta inolaz apurtu ezin diren protokoloak. Eutsi udalaren nortasunari.

Osatu da azpeitiarren festa-postala.

JOXE AGUSTIN: Eta denak ezin ditugulako erakutsi, baina festa gehiago ere baditugu herrian, aizue! Elizkaleko festak, Enparan kalekoak, Damasonekoak, Amukroneko DjKanpax, Errebalekoak, Loiolakoak, Xanjuandegikoak, Landetakoak, Urrestilla eta Nuarbekoak, Aratz-errekakoak... Gora Azpeitiko festak eta biba Azpeitiarrak! (*Txupinazoa*)

Txaloak eskatuz.

SARA agertzen da Sanagustin erdian ikuslegoaren artean zutik, tinko. Foko bat du berarentzat.

4.-UMEAK

SARA: Jo, aspertzen ari naiz!

Dena isiltzen da kolpera. Milari herriko bandera erantzten diote.

♪ DISNEY ♪

MILA: Zer entzun dut? Azpeitiko herrian ume bat aspertuta dagoela? Nork esan du hori?

DENAK: Nork?

SARA: Nik!

MILA: *(Ikusleei)* Aspertuta omen dago. Sinesten al duzue? Bai? Ez dut entzuten. Azpeitian denetik dago!

DENAK: Denetik!

MILA: Eta lan asko egin dugu hala izan dadin. Udalak guztiongan pentsatzen du! Parke zoragarriak ditugu.

DENAK: Parkeak!

MILA: Adibidez, Izarraitz-ko atea parkea.

DENAK: Parkeak!

MILA: Txirrista luuuuuuze batekin. Txorrotak ura bota eta bota uneoro. Tarteka botila zaharren bat edo gomazko pilotaren bat topatu arren. Leku zoragarriagorik ba ote ume batentzat? Eta gainera, parke asko ditugu!

DENAK: Parkeak!

MILA: Eguraldi txarrarekin parke estaliak.

DENAK: Parkeak!

MILA: Gure umetxoak gaixotu ez daitezen, hemen ondoan daukagun parkea.

DENAK: Parkeak!

MILA: Guraso oso-oso arduratsuak ditugu herrian eta zurrutean gustura-gustura ibiltzeko *ala porai*, askatzen dituzte umeak parkean. Hori bai dela plana! Beti gazte!

DENAK: Nahi bai!

SARA: Beste zerbait, beste zerbait.

DENAK: Gehiago?

MILA: Hara, sekretua zen gaur arte, baina proiektu berri bat heldu da gure mahai gainera, eta kanpoko enpresa batek, gure fabrika

zahar eta abandonatua biziberritu nahi du. Corrugados zegoen lekuan egingo dugu Aqua-parka!

DENAK: Aqua-parka!

MILA: Edo parke heolikoa!

DENAK: Parkeak!

SARA: Beste zerbait! Beste zerbait!

DENAK: Beste zerbait?

MILA: Baina, baina... Denetik daukazue! Zapo-leku (txoko), txiki-txaka ludoteka, Iturri-txoko, gazte-lagun, lagun-onak, lagun-aro... Ez dut ulertzen zer behar duzuen. Gure herriko umeak munduko umerik zoriontsuenak zarete!

SARA: Azkoitia hobeagoa da!

DENAK: (Zur eta lur) Nolaaaaaa?

♪ CHICA YE-YE ♪

*Zati honetan orain arte agertutako per tsonaia denak daude eszenatokian, festen zatian ageri direnak. Baita umeak ere. (Eta **DANTZARIAK** koreografia bat eginez "Numero musikalean" umea igoko dute eszenatokira "Concha Velasco" balitz bezala.*

Esteka honetan dago abestiaren karaokea. Ondo uztartzen da jarraian datorren testuarekin. <https://www.youtube.com/watch?v=WSUuskI3TdQ>

MILA: (Abesten) Ez zara konturatzen... Ze herritan bizi zaren.... Ez zara konturatzen...

Ez zara konturatzen!

ABESBATZA: Ye ye!

MILA: Ze herritan bizi zaren!

ABESBATZA: Yeye ye ye

MILA: Herri eder eta aberatsa, hoixe da gure Azpeitiye.

MAXUX: Bada bai gure herriyen,

ABESBATZA: Ye ye

MAXUX: gezurre ta egiye,

ABESBATZA: Ye ye ye ye

MAXUX: Euskaldun peto(ak) eta jatorrak,

Gu gara Azpeitiye.

JORITZ: Egin zuk ere zerbait herriaren alde,

denon artean beti gure Azpeitiye

JOXE AGUSTIN:Santu guztiek bedeinkaute,

beti dago gure herriye,
IRENE: Gora Azpeitiye, Gora Azpeitiye.
zu bai zarela zoragarriye.
MILA: Ez zara konturatzen
ABESBATZA: Ye ye
MILA: Ze herritan bizi zaren.
ABESBATZA: Ye ye ye ye
MILA: Kioskotik ozen esan dezagun, badatorrela aro berriye,
DENOK: Ta gora ta gora gure herriye,
Ta gora bai Azpeitiye!
Ta gora ta gora gure herriye,
Ta gora bai Azpeitiye!

Musika

JORITZ: Egin zuk ere zerbait herriaren alde,
denon artean beti gure Azpeitiye,
JOXE AGUSTIN:Santu guztiek bedeinkaute,
beti dago gure herriye,
IRENE: Gora Azpeitiye, Gora Azpeitiye,
zu bai zarela zoragarriye.
ABESBATZA: Aaaaaaaaaaaaaaaaaa!
MILA: Ez zara konturatzen!
ABESBATZA: Ye ye!
MILA: Ze herritan bizi zaren!
ABESBATZA: Yeye ye ye
MILA: Kioskotik ozen esan dezagun, badatorrela aro berriye,
DENOK: Ta gora ta gora gure herriye,
Ta gora bai Azpeitiye!
Ta gora ta gora gure herriye,
Ta gora bai Azpeiti/yeeeeeeeeee eeeeeeeeeeeee!

Barreanean: Ez zara konturatzen, ez zara konturatzen, ez zara konturatzen...

Arazo teknikoak hasi dira jada abestiaren bukaerarako. Argiekin arazoak, kea... Argi gorriak, estroboa... Komeni dena.

AURKEZLEA: Ez! Gureak egin du! Herri hau zulora doa!

Aurkezleak mazoa eta kapela botatzen ditu eskenatokian.

MILA: Baina nora zoaz? Ei! Aurkezlerik gabe ezin dugu aurrera jarraitu!

JOXE AGUSTIN: Aizak! Itzuli derrepentean!

AURKEZLEA: (Nereari) Arriskuan zaudete! Arriskuan!

NEREA: Aiama baño ze aida pasatzen? Zer da hau?

AURKEZLEA: Otsoak! Otsoak!

Abestia amaitzerako figuranteek alde egin dute agertokitik. Argiekin arazoa hasten denean, adibidez. 5 protagonistak bakarrik geratzen dira.

Eta bat-batean, ARGIA JOATEN da. Dena ilunpean gelditzen da.

5.-KRAK

(Zuen artean Azpeitiarrez eta ikusleei batuan)

Denak zur eta lur gelditzen dira. Isilune laburra eta...

- JORITZ:** Zer gertatu da?
- IRENE:** Baina ze... Oso gutxi falta zen zozketara iristeko!
- MAXUX:** *(Ikusleei)* Lasai, lagunok. Berehala konponduko dugu. Ez dakigu zer gertatu den, baina lasai.
- MILA:** *(Ikusleei)* Bai, lasai. Esku honetan zaudete. Non zaude Joxe Agustin?
- JORITZ:** Joxe Agustin?
- IRENE:** Joxe Agustin?

Isiltasuna.

- MILA:** Joxe Agustin!
- JOXE AGUSTIN:** *(Bere burua linternaren argiaz argituz)* Hemen nago! Ia bihotzekoak eman dit
- JORITZ:** Jaungoikoaren izenean hau da sustoa!

Denek sekulako sustoa hartzen dute.

- JOXE AGUSTIN:** Hartu. Denentzat daukat eta.
- MILA:** Zuek lasai, benetan!
- JORITZ:** *(Izututa)* Ama!
- AMA:** Joritz hemen nago, hemen nago, lasai! *(Ikusleei)* Ilunpeak beldurra ematen dio eta... *(Joritzi)* Nora joaten gara gu pilotan jolastera, Joritz? Ilunbera!
- MILA:** Zer gertatu da, Joxe Agustin?
- JOXE AGUSTIN:** Horixe jakin nahiko nuke nik. Argiaren koadroan zerbait gertatuko zen. Gauargira deitu beharko dugu.
- IRENE:** A ze fundamentu "exkaxa" *Kulturaz*-eko hauena! Gu hemen denak emanda eta...
- MAXUX:** *(Txistua jo eta ikusleei)* Zuek ez kezkatu eta ez larritu, lasai. Arazo tekniko txiki bat eduki dugu, baina berehala konponduko du norbaitek, hori konpontzea tokatzen zaionak...
- JORITZ:** Eta zuk nola dakizu hori?
- IRENE:** Lasaitu hadi, Joritz! Jende mordera zagok guri begira. *(Ikusleei)* Eta zuek ere lasai. Gauza hauek ohikoak dira hemen.

JOXE AGUSTIN: *(Besteei)* Linternak baditugu behintzat. Brigadakoak dabilta konpondu nahian, baina ez dut uste...

JORITZ: *(Moztuz. Barrurantz hitz eginez)* Konpondu al duzu?

Pausa laburra eta...

JULEN: Ez al duk ikusten ezetz?

MILA: *(Ikusleei)* Zuek egon hor geldi lasai. Teknikoak lanean ari dira eta laster itzuliko da argia. *(Besteei)*

Abesbatzakoek linternak piztuko dituzte.

ABESBATZA: ♪ Nora zoaz, Milagros?

MILA: Kanpora noa.

ABESBATZA: ♪ Zertara?

MILA: Alkateari deitzea izango da onena.

ABESBATZA: ♪ Ai, ai, ai Azpeiti, zenbat leku ,zenbat *ixtori!*

MILA: Nahikoa da! Ixo!

MAXUX: Hori da, ixo!!

Abesbatzakoek linternak itzali. Eta hori esan eta kalera abiatzen da.

IRENE: Argia moztu digute, hori da. *(Teknikoei)* Lata ederra ematen duzue Ekindar gora eta Ekindar behera... Ez al duzue argia ordaintzen? Zorrak al dituzue edo?

JUNE: *(Ireneri)* Duen prezioarekin harritu egiten al haiz?

MAXUX: *(Txistua)* Ixoo!

JOXE AGUSTIN: *(Hasperen eta besteei, serio)* Badakit! Laster naiz bueltan.

Abesbatzakoek linternak piztu.

ABESBATZA: ♪ Nora zoaz, Joxe Agustin?

JOXE AGUSTIN: Bale!

Abesbatzakoek linternak itzali. Eta kalera abiatzen da arin.

JORITZ: Joxe Agustin! Joxe Agustin! Maxux, zerbait egin beharko duzu ba?

MAXUX: Nik? Hori ez da nire lana. *(Ikusleei)* Lasai, zuek hor egon geldirik, mesedez. Ez inor mugitu bere lekutik. Ez dugu istripurik behar. Gainontzeko udaltzainak oso lanpetuta daude eta nire ardurapean zaudete orain.

IRENE: Ea bestela zer, jendeari, ezker-eskuin, jendea fitxatzen hasiko al zara?

JORITZ: Argi ibili!

6.-MATXINADA

Argiak piztean pantailari begira daude, ikusleei bizkarra emanda.

Buelta hartzen dute poliki. Ezin dute sinetsi ikusi dutena. Jota daude. Erabat dezepzionatuta.

- IRENE:** *(Zur eta lur)* Bua, bua, bua...
- AMA:** *(Haserre)* Ez dago eskubiderik! Azpeitia txosna handi bat da!
- JORITZ:** Ama, mesedez! *(Besteei)* Baina, zer izan da hori?
- IRENE:** Dezepzioa eta sekulakoa. Hauxe bai ez nuela espero.
- JORITZ:** Zuk ba al zenekien zerbait, Maxux?
- MAXUX:** *(Serio)* Niri ez didate ezer esan; ezertxo ere ez.
- IRENE:** *(Aurkezleari)* Eta zuk? Zuk jakingo zenuen.
- LURDES:** Nik? Nik ez dakit ezer. *(Paper bat atera eta)* Hemen jartzen du nik noiz parte hartu.

Joritzek hartzen du papera.

- JORITZ:** Egia esaten ari da.
- ABESBATZA:** ♪ Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.
- IRENE:** Eta gu engainatu egin gaituzte! Dena tranpa bat izan da!

Joritz bere liburuan begira hasten da.

- JORITZ:** Hemen jarri behar du zerbait! Jarri behar du... *(Liburuko orriak astinduz)* Ez du ezer jartzen!
- IRENE:** Zer nahi duk hor jartzea?
- JORITZ:** Nik zer zakinat ba! *(Pantaila seinalatuz)* Zer ikusi dugun hor, adibidez! *(Maxuxi)* Maxux!
- MAXUX:** Honek ez du izenik. Hainbeste urte hemen lanean eta ez didate ezer esan.
- IRENE:** Zenbat izerdi herriaren alde, zenbat parranda gabeko gau, zenbat gose pasa dudan, Santiyoetan txekorrik probatu ere ez eta orain hau!
- JEXUX:** *(Mugikorrean begira)* E! Uztarrarian notizia: Arazo batzuk tarteko itzuli da argia HERRIYE ekitaldira.
- NEREA:** *(Mugikorrean irakurriz)* Gabiriko Pablok dio: "Uztarraria no es lo que era". Elizkaleko txakur kakari buruz ezer jartzen al du Uztarrarian?

JEXUX: Ea, herria ahal duena egiten ari da.

IRENE: Ahal duena?

DANTZARIA 1: Engainatu egin gaituzte! Ekitaldi honetan parte hartzeko munduko ilusio dena jarri dugu!

DANTZARIA 2: Herri hau ustelduta dago, Lapatxen pare!

JULEN: Normala Urrestillak independentzia nahi izatea!

MAXUX: Bueno, mesedez!

NEREA: Nik hasieratik hartu diot honi usain txarra!

JORITZ: Pentsu usaina!

AMA: Eta zozketa? Zer gertatuko da sariarekin?

NEREA: Udalak hobe luke zozketak utzi eta ibaiko belarrak moztuko balitu! Ezta Kimu bat-en ere horrenbeste landara!

JEXUX: Mesedez, umeak ere hemen daude. Errespetu pixka bat.

UMEAK: Gu krisian gaude Go!azen ez delako Azpeitian grabatzen okupen erruz. Krisian gaude!

Umeak altxa eta GO!azeneko kantuarekin badoaz.

NEREA: Esklabak daudela okupatuta? Eraikinaren bi aldeak daude okupatuta, e? Baita gainontzeko komentuak ere!

JULEN: Jada Japoniarren autobusak ere eztira etortzen Loiolara... Herri hau zulora doa.

MAXUX: *(Txistua)*

JEXUX: Baina zer da hau? Honek Gaztetxeko parodia ematen du!

IRENE: Arazoari heldu behar diogu! Herritar eredugarri gisa ekarri gaituzte, eta orain zer?

JORITZ: *(Erdi negarrez)* Eta zer egin behar dugu?

AMA: Negarrik ez ezak egin behintzat!

NEREA: Utziozu mutilari negar lasai egiten

JORITZ: Zer egin behar dugu???

IRENE: Nik ezer ez. Honek ez du izenik.

JORITZ: Zer egin behar dugu, Maxux?

MAXUX: Nik ezer ez. Ez didate ezer egiteko esan. Agindurik jasotzen ez dudan bitartean... Ni zerbitzaria naiz. Sierba bat.

IRENE: Sierba edo esklaba? Zer zara zu?

ABESBATZA: ♪ Munizipala, ez da norm...

- MAXUX:** E! Nahikoa da! Ixpixioan denentzako lekua dago! Baita alboko tabloian ere!
- JORITZ:** *(Etsita, berriz ere liburuan begira)* Hemen jarri behar zuen zerbait, jarri behar zuen... Ai amaaa!
- AMA:** Bai seme?
- MAXUX:** Borondate falta politiko izugarria nabari da proiektu honetan.
- IRENE:** Ze proiektu? Ez dago proiekturik! Ez proiektu ekonomikorik, ez azterketa teknikorik, ez eta negozio planik!
- JORITZ:** *(Liburuan begira)* Ez. Trukutxotik hasi eta Amurako tartean begiratu dut eta ez dago proiekturik.
- MAXUX:** Azpeitiko herriarekiko begirunea exijitzen dut. Azpeitiak ez du merezi gure herriari egiten ari zaion kalte hau.
- NEREA:** Zer uste duzue ba, beti egia esaten digutela? Inork ba al zekien kiosko azpian halakorik zegoenik? Eguzkitzaneko gezur-toki ematen du honek!
- JEXUX:** Bueno, nahikoa da, e? Dena ezin dugu jakin!
- POETA 1:** Barkatu, e? Hau hasi denetik zain gaude.
- POETA 2:** Noiz tokatzen zaigu?
- AURKEZLEA:** Ba orain jada ez dakit zer pasatzen den...
- ABESBATZA:** ♪ Ez dakit zer pasatzen den azken aldi hontan...
- NEREA:** Ze txapuza klase da hau?
- JULEN:** Atera dinosaurioak Lapatxetik!
- MAXUX:** Azkenien kobrau ingoek e!
- IRENE:** *(Soka gerritik askatu eta lurrera botaz)* Azpeitiko herriak urrezko soka hau eman zidanean Azpeitiko kirolari onena sentitzen nintzen, eta orain... eten da zilbor estea. Makurtu egin naute herriko plazan, denen aurrean... Ni naiz sokako zezena, zezena naiz, muu...
- JORITZ:** Urrezko soka? Nuarbeko sokatirako soka dun hori.
- ABESBATZA:** ♪ Ez da posible, ezin liteke.

Irene, soka hartu lurretik eta, bere lepoan lotzen hasten da.

- IRENE:** Ba akabo! Hementxe esango diot agur munduari! Herriaren aurrean!

Bere buruaz beste egiteko prest dago. Maxux eta Joritz hurbiltzen zaizkio korrika, geldiaraziz.

- MAXUX/JORITZ:** E! E! Ez, ez!

JORITZ: Ez! Abitainera joateko goiz da oraindik!

MAXUX: Ordena manten dezagun, mesedez! Ordena!

Iskanbila sortzen dute. Irene lurrean etzanda soka lepoan duela. Joritz sokari tiraka. Maxux erdian, bere txistua joz Joritzi ez tira giteko esanez...

Beraien artean iskanbila handia sortzen da, denak bere onetik irtenda, eta era berean, gure ikusleen oihuak entzuten ditugu.

JEXUX: Bueno, bueno... Nahikoa da, ez? Zirko hau ekitaldiaren parte al da? Nahita ari al zarete? Egingo al duzue behingoz Antton Porruren errifa?

NEREA: Nahikoa dela? Irenerentzat nire babesa! Aurrera, Irene! Zerbait egin behar dugu honen guztiaren aurrean!

Protagonistak gisa honetan eta ikusleak berotuta dauden honetan Sanagustinera sartzen dira Mila eta Joxe Agustin. Oholtzara igotzen dira.

MILA: Ea, zer pasatzen da hemen?

NEREA: Horixe jakin nahiko genuke guk ere, zer hari den pasatzen!

JOXE AGUSTIN: Zozketan parte hartu nahi badun eseri!

MILA: Lasaitu denok!

Besteak elkarrengandik banatu eta...

JORITZ: Ia hil egin duzue!

JOXE AGUSTIN: Guk? Guk dena konpondu dugu, baietz Mila? Argia etorri da!

MILA: Klaro! (*Ikusleei*) Herritar maiteok, ez da ezer gertatu! Jarrai dezala festak! Animo! Izan gudan konfiantza.

IRENE: Nik ez dut zerrikeria honen parte izaten jarraitu nahi.

JORITZ: Nik ere ez!

MAXUX: Ezta nik ere!

Eta hirurek alde egiten dute.

JOXE AGUSTIN: Begira, begira ze ondo doan dena!

♪ SAGARDO TOKIAN ♪

ABESBATZA: ♪ Ipurtzulua itxita, hamar egunian

MILA: Ixo! Itxoin. (*Joxe Agustini*) Zerbait egin behar dugu, Joxe Agustin... Alde egin dute! (*Ikusleei*) Zuek ez kezkatu, e? Dena oso ondo dago.

Ekitaldiak aurrera jarraitzen du! Laster egingo dugu zozketa zoragarria! Urduri al zaudete?

POETAK: *(Milari)* Orain poesia dator...

MILA + J.A.: BADA KIGU!

POETA 1 eta POETA 2 *lekua hartzera joaten dira*

MILA: Gure herriak zer egiten du arazoaren aurrean?

JEXUX: Erabakiak hartu, burua altxatu eta aurrera egin!

JOXE AGUSTIN: Ez da erraza beti erabaki bat hartzea. Urkullu edo bakallau txapelketa? Kuadrilla bazkaria edo puru piztea? Gautxori edo Exkerretei? Larre edo Harrobi? Sahatsa edo Itsasi?

ABESBATZA: ♪ Joxe Agustin

JOXE AGUSTIN: Eta orain, zuek guztiontzat, hitz eder batzuk!

Mila eta Joxe Agustin desagertu egiten dira eta poetak poesia irakurtzen hasten da.

7.-POESIA

♪ PIANO ♪

DENAK: *Auuuhhh!!!
Geure historia dugu hau!
Auuuhhh!
Geure historia dugu hau!*

POETAK: *Nire bihotzak ez daki oraintxe
munduari nola eskertu,
behin biziko ta zorion hutsez
hemen nauelako hartu.*

*Urola ibaiak bere ur biziz
menderik mende erne du,
Izarraizpeko zabaldietan
hamaika gizandi prestu.*

*Poesiaren hegoak zabal
nahi nuke goian ezarri,
nire herriaren urrezko izena
eta ozen egin aldarri.*

DENAK: *Gora ta gora Azpeiti!
Gora ta gora Azpeiti!*

POETAK: *Gure armarri paregabe
aldenik alde bi otso,
baina tarteko lapiko beltzak
misteriotik du askotxo.*

*Eltze barruko jakituria
nahi genuke isuri gaur,
ikaskizunak atera bitza
heldu, gazte, zahar eta haur.*

DENAK: *Auuuhhh!
Geure historia dugu hau!
Auuuhhh!
Geure historia dugu hau!*

TXERTAKETA 3: KOMUNA (Irene, Joxe Agustin)

DENAK: *Auuuuhhh!!!
Geure historia dugu hau!
Auuuuhhh!
Geure historia dugu hau!*

POETAK: *Lurrak, artean gaztea zela,
amets egin zuen gozo,
eta amets hori bizitza orain
guri dagokigu oso.*

*Otsondo-otsanda ameslariak
Azpeitikoak gara gu,
ez diren gauzak ta badirenak
nahi gabe nahasten ditugu.*

*Ai! lapikoa, eltze dontsua
irakasterik bazenu,
sortzez bertako jaio ez denari
nola azpeitiar bihurtu!*

DENAK: *Gora ta gora Azpeiti!
Gora ta gora Azpeiti!*

*Azpeitia aldean santutegiak zabalik ditugu nonahi,
gizakientzat gutxi ez eta animalientzat ere bai,
etxeabereen pentsu fabrika zenbat ke ta santu-usain,
Lapatx bidean arratoi sailak erromes dabilta alai.*

DENAK: *Auuuuhhh!!!
Geure historia dugu hau!
Auuuuhhh!
Geure historia dugu hau!*

TXERTAKETA 4: KUPULA (Joritz, Mila)
--

JOXE AGUSTIN: Mila! Etorri azkar!

DENAK: *Auuuuhhh!!!*
 Geure historia dugu hau!
 Auuuuhhh!
 Geure historia dugu hau!

POETAK *Sokamuturrak tradizioak soka luzez lotzen ditu,*
 zezenik gabe gure barruek ezin dute errenditu
 haren marruek, axkaxal-hotsak badute hainbat meritu
 bat batean gu historiaurreko ehiztari egiten gaitu.

Zezen plazako jaien kontua aipa dezagun aparte,
azpeitiarrek demaren grina odol zainetan dakarte:
horko apustu, desafioak, zezen festa eta beste ...,
tximistak eta trumoiak ere badakite horrenbeste.

DENAK: *Gora ta gora Azpeiti!*
 Gora ta gora Azpeiti!

POETAK: *Turismoak ere gure herriari jarria dio begia,*
 mirarizkoa dirudi hemen lurra eta izartegia,
 inoiz pentsatuz edertasun hau ez ote den gehiegia
 plastiko puska zikintzen dugu aldiro ibai hegia.

Urrun handitan, oi!, ez bilatu etxe ondoko distira,
ezeizkoen miraz bazara zatoz tren bila Azpeitira,
bultzi xaharrean Lasaora joanda zeharkatzen da lurbira:
mundua zer den ondo ikasteko lau kilometro aski dira.

DENAK: *Auuuuhhh!!!*
 Geure historia dugu hau!
 Auuuuhhh!
 Geure historia dugu hau!

TXERTAKETA 5: PARKEA (Maxux, Mila, Joxe Agustin)

DENAK: *Auuuhhh!*
 Geure historia dugu hau!
 Auuuhhh!
 Geure historia dugu hau!

POETAK: *Denborak gurpil gupidagabez bere legea ezartzen du:*
 galdu zen trena, hamaika tailer, zenbat baserri, etxe hustu,
 gauza kuttunen galerak ez du hala ere Azpeiti makurtu,
 noizbait euskara ahazten bazaigu, museo bat egingo dugu.

Amets guztiek daukate berez
ezarria epemuga,
denok oraintxe nahiko genuke
negua bihurtze uda...

Etsi onean aitortzen dugu
azpeitiarrok hil beharra,
ta Azpeitia berriz ez ikustea
da gure pena bakarra.

DENAK: *Auuuhhh!*
 Geure historia dugu hau!
 Auuuhhh!
 Geure historia dugu hau!

Poesiaren hegoak zabal
nahi nuke goian ezarri
nire herriaren urrezko izena,
eta ozen egin aldarri.

DENAK: *Gora ta gora Azpeiti!*
 Gora ta gora Azpeiti!

Poetak eszenatokitik alde egingo dute.

8.-ZOKKETA

♪ ENTREACTE CABARET ♪

Dantzariak lapikoa sartuko dute.

MILA: Lagunok, azkenean, iritsi da denok itxaroten genuen unea!
Zozketaren momentua! Udalerako lanpostuak zozketatuko ditugu!
Gainera sorpresa berezi bat dugu zuentzat, azkenean Lanpostu bat ez,
orain jada bi lanposturen zozketa izango da! Halakoxe eskuzabala da gure
herria! Behera penak, Gora pagotxak!!!

Txaloak.

MAXUX: Azpeitiar maiteok, zenbaki bat duzue zuen
aulkiaren atzean itsatsita. Begiratu ondo denok, mesedez.

Eman une bat ikusleei beren zenbakiak begiratzeko.

MAXUX: Guk bi zenbaki aterako ditugu eta zurea suertatzen bada...

DENAK: Zorionak!

MAXUX: Zuretzat izango da lanpostuetako bat! Denok begiratu duzue? Bai?
Ea ba, denok prest bagaude... Aurrera zozketaren arduraduna!

Txaloak. Lander sartuko da.

LANDER: Hemen bolatxoak.

MAXUX: Bingoa baigerako zaharren kortesia, eskerrikasko. Prest gaude?
Aurrera.

ABESBATZA: ♪ Bira eta bira, herri guztia zuri begira

Danbor-arrada entzuten da. Landerrek zenbaki bat ateratzen du kutxatik.

LANDER: 84

Txaloak.

JORITZ: 84 , etorri oholtzara, mesedez!

Dantzariak bila jaitsiko dira. Oholtzara igoko da.

JORITZ: Zorionak, Azpeitiar! Zein da zure izena!

AZKOITIARRA: X.

DENAK: Zorionak, X!

JORITZ: A ze ohorea, ezta?

AZKOTIARRA: Jo baietz! Ezin sinetsita nago! Hau iluixue! pilota atera eta niri
tokatu zaidala ikusi dudanean antxintxike etorri naiz hemen gora!

Eta kolpera, denak berari begira geratzen dira. Musika kolpera isiltzen da.

DENAK: Iluixue? Merixue? Antxintxike?

JORITZ: Baina zu...Azkoitiarra zara!

Maxux txistua jotzen hasten da eta Azkoitiarrari agertokitik alde egiteko adierazten dio.

DENAK: Uuuuuu! Kanpora! kanpora!

ABESBATZA: ♪ Ama, nahi dezunian jokaizu loterixe

Eta agertokitik bidaltzen dute.

JORITZ: Nahikoa da! Tira, infiltratu bat genuen gure artean, baina azkar asko harrapatu dugu. Munategitik haratagoko inor ez, mesedez! Oinarrietan argi eta garbi jartzen du: Azpeitiarrontzat izango da lanpostua! Eta propagandetan argi eta garbi utzi genuen hori. Beraz... Nahi duzunean.

ABESBATZA: ♪ Bira eta bira, herri guztia zuri begira.

Landerrek beste zenbaki bat ateratzen du.

LANDER: 1!

IKUSLE SARITUA garrasika hasten da dagoen lekuan.

JORITZ: 1, etorri oholtzara mesedez!

JEXUX: Ni! Ni! Ni!

NEREA: Tooongo!

Joxe Agustin bere bila jaitsiko da.

JORITZ: Zorionak!

JEXUX: Eskerrik asko! Ai, ez zait inoiz ezer tokatu! Ez Bertaneko eskaparaterik, ez umeen boleturik, ezta urte zaharretako Zuhatzeko mariskorik e!

JORITZ: Zure izena?

JEXUX: Jexux. Jexux Azpeitia

DENAK: Zorionak Jexux!

JORITZ: Ea ba Jexux, aurrena, galdetegi txiki bat erantzun behar duzu. Lehengoa ikusi eta gero, badaezpada...

1. Ze hankatan jo zioten tiroa San Inaziori?
 - a. Ezkerrekoan
2. Nola deitzen zaio Fideooko Patxiren koktel famatuari?
 - a. Patxikitue
3. Zenbat ohe huts daude azpeitiko konbentuetan?
 - a. 587
4. Zenbat azpeitiar agertu dira Goenkalen?
 - a. 15

JORITZ: Hau bai, hau Azpeitiarra da! Txalo bero bat!

Txaloak.

IRENE: Benetako azpeitiarra izatea gauza ederra da! Eta bigarren eta azken saria, lanpostu bikaina... Norentzat izango ote da? Aurrera

ABESBATZA: ♪ Bira eta bira, herria zuri begira.

Landerrek beste bolatxo bat ateratzen du eta...

LANDER: 96!

Dantzariak bila jaitsiko dira.

IRENE: 96 benga, igo eszenatokira!

Ikuslegoko norbaiti tokatu zaio.

IRENE: (*Landerri*) Barkatu, bolatxoa alderantziz dago!

LANDER: Barkatu! Nahastu egin naiz. Hirurogeita bederatzi!

IRENE: 69 benga, igo eszenatokira!

JORITZEN AMARI tokatu zaio. Poz-pozik jartzen da eta azkar batean badoa agertokira. Semea ama besarkatzera doa, negarrez.

JORITZ: Nire amari tokatu zaio! Nire amari tokatu zaio!

AMA: Orain ez seme.

IRENE: Zenbaki erotikoa tokatu zaizu!

AMA: Bake-bakean uzten diot nik horri! Bestela bixitu egiten da!

IRENE: Zure izena?

AMA: Amparo Beristain Bastida.

DENAK: Zorionak Amparo Beristain Bastida.

IRENE: Eta ziur zaude benetako Azpeitiarra zarela?

AMA: Bai bai, odolekue!

IRENE: Ea Amparo,

1. Zenbat iturri daude Labandeien?
 - a. Lau! Arkupe, Alberka eta Abitain 1 eta Alberka 2! Gure Antzerki topaketen irudia! Aurten 40 urte! Zorionak!
2. Zenbat plazak daukate emakume izena?
 - a. Bakarrak. Valentina Agirre
3. Zenbat ikastola daude herriyen?
 - a. Bat eta... bakarra.
4. Noizko bukakoie esklabatako alkiler sozialan obrak?

a. Puff ezta arrastoike

IRENE: Erantzun egokia Andre ta jaunok, hemen benetako azpeitiar bat!
Bigarren lanpostua zuretzat!

Txaloak. Bi sarituak poz-pezik daude.

MAXUX: Eta orain bai, azkenean iritsi da une handia! iritsi da gure irabazleei
ze lanpostu tokatu zaien esateko unea....

Dantzariak, lapikoa atzera eraman eta sobrea hartuko hartu eta Joxe Agustini emango diote.

ABESBATZA: ♪ Horra lapikoa, azpeitiyeren harmarrikoa. (x2)

Abesbatzakoak emozionatuak hasiko dira abesten.

JOXE AGUSTIN: (Barruko papera atera eta irakurriz) Gaur hemen saritua izan den, tira, diren, herritarrak izango dira lanpostuen jabeak
Azpeitiko udalak aho batez hala erabakita urriaren 26ko udalbatzarrean. Jarduera osoko lanaldia izango da, bizi osorako eta herrian bertan kokatuta dagoena, plazan hain zuzen ere. Epel eta goxo egongo zaretela hitz ematen dizuegu eta udalak, zuen izenekin, plaka bat jarriko du udaletxearen sarreran. Azpeitiko udalaren irudi berria izateko aukeratuak izan zarete! Txalo bero bat herritar sarituentzat... eta nire amarentzat! Eta orain, goazen zuen lanpostu berria ezagutzera!

DENAK: Zer dio otsoak!

Jende artetik pasatzen dira kalerantz, jendearen TXALO ETA OIHUEN artean.

TXERTAKETA 6: KIOSKOA 2.

Kioskoaren bideotik bueltan...

- MILA:** Zorionak bi herritar ausart hauei! Herria salbatu dute.
- MAXUX:** Izan ere, zaintzen ez den lapikoari zer gertatzen zaio?
- DENAK:** BOOM!
- JORITZ:** Txalo bero bat gure bi heroientzat!
- IRENE:** Bi herritar zintzo eta leial, eta lasai bizi gaitzke beste puska batean! Gure lapikoak baditu zaintzaileak berriz ere, eta gure herriak badu berriro ere merezi duen harmarri ederra.
- JORITZ:** Gure herriko otso zaindari zaharrak ezin izan dute gehiago, gaixoak. Duela gutxi Udalak bere irudia berritzeko beharra izan zuen. Azpeitiarron sena modernitatez eta diseinu elegantez mozorrotzeko beharra.
- MAXUX:** Baina ez dezagun ahaztu gure nortasuna eta gure izaera, gainontzeko herrien aurrean egiten dugun islada, gipuzkoan, euzkadin eta mundu osoan!

TXERTAKETA 7: HARMARRI ALDAKETA

- MILA:** Azpeitiar izaera gordetzeko lapiko handia behar da, harrotasuna, adorea, nostalgia eta elkar ezin ikusia nahasten dituen salda arriskutsua. Ez da erreza salda ez mintzea edo gainezka ez egitea, ezta bertan ez itotzea ere. Baina hori gara gu, hori da Azpeitiye eta hori da HERRIYE.
- KORUA:** NIRE HERRIYE
ZURE HERRIYE
GURE HERRIYE!

TXERTAKETA 8: KREDITUAK

AMAIERA